

## VI. ERANSKINA: AIPAMEN BEREZIAK (AUKERAKOAK)

Doktorego-programek honako aipamen hauek jaso ahal izango dituzte:

<b>3. DIMENTSIOA: EMAITZAK</b>
<b>8. IRIZPIDEA. NAZIOARTEKOTZEAREN AIPAMENA (EUSKARA)</b>
<b>9. IRIZPIDEA. TRANSFERENTZIAREN AIPAMENA</b>
<b>10. IRIZPIDEA. ENPLEGAGARRITASUNAREN AIPAMENA</b>

8. irizpidea gaindituta, nazioartekotzearen aipamena lortuko da, 9. irizpidea gaindituta transferentziaren aipamena, eta 10. irizpidea gaindituta, berriz, enplegagarritasunaren aipamena.

Doktorego-programaren egiaztapena berritzeko unean Unibertsitateak doktorego-programa aipamen horietako baterako edo batzuetarako aurkezten badu, egiaztapena berritzeko ezarritako izapideei jarraituko zaie. Izapide arrunt horiez gain, Unibertsitateak txosten bat egingo du, eta Unibasq-i bidaliko dio zuzenean. Bertan, dagokion aipamena eskatuko du, eta dokumentu honetan lortu nahi den aipamenerako zehaztutako irizpideak eta jarraibideak betetzen direla azalduko du.

Doktorego-programek jarraipen-prozesuak dirauen artean ere lortu ahal izango dituzte aipamen bereziak. Dagokion jarraipen-txostenarekin batera, txosten bat aurkeztu beharko da. Bertan, dagokion aipamena eskatuko da, eta dokumentu honetan lortu nahi den aipamenerako zehaztutako irizpideak eta jarraibideak betetzen direla azalduko da.

Unibasq-ek doktorego-programa bakoitzari buruzko txosten bat egingo du. Ebaluazioa titulua atxikita dagoen adarreko Titulazioak Ebaluatzeko Batzordeak egingo du. Batzorde hori adituez osatuta egongo da. Ebaluazio Batzordeen jardunek Unibasq-ek bere Etika eta Eskubide Kodean eta dokumentu honek biltzen dituen barne-prozedurako arauetan ezarritako argibideei jarraituko diete.

Titulazioak Ebaluatzeko Batzordeak txosten-proposamen arrazoitu bat egingo du, eta aipamenaren aitortpenaren aldeko edo aurkako iritzia agertuko du bertan. Azken kasu horretan, aldeko txostena lortzeko alegazio-epearen barruan nahitaez aldatu beharreko alderdiak adierazi ahal izango dira. Txosten-proposamen hori Unibertsitatera

bidaliko da, 20 egun naturaleko epean alegazioak aurkeztu ahal izan ditzan. Epea amaitu eta, hala badagokio, alegazioak balioetsi ondoren, Unibasq-ek behin betiko ebaluazio-txostena egingo du (aldekoa edo aurkakoa), eta unibertsitate eskatzaileari eta Eusko Jaurilaritzari igorriko die. Aurkakoa denean, hobetzeko gomendioak adierazi ahal izango dira. Gomendio horiek titulazioaren egiaztapena egiaztatu, berritu edo haren jarraipena egitean emandako gainerako gomendioak bezala izapidetuko dira.

Txostena 6 hilabeteko epean egingo da gehienez, ebaluazioa egiteko beharrezkoa den dokumentazio guztiaren sarrera-datatik aurrera zenbatzen hasita. Adierazitako epean esanbidezko ebazpenik ez badago, eskaera ezetsizat hartuko da.

## IRIZPIDEEN ETA JARRAIBIDEEN BETETZE-MAILA

### 3. DIMENTSIOA: EMAITZAK

#### 8. IRIZPIDEA. NAZIOARTEKOTZEAREN AIPAMENA (EUSKARA)

**Aukerakoa.** Doktorego-programak nazioartekotzearen aipamena lortu ahal izango du, betiere honako betekizun hau betetzen badu: **sei urteetan defendatutako gutxienez 6 tesik nazioarteko/Europako doktoregoaren aipamena dute.**

**Doktorego-programak nazioartekotzearen aipamena (euskara) lortu ahal izango du, betiere honako betekizun hau betetzen badu: sei urteetan euskaraz defendatutako gutxienez 3 tesik nazioarteko/Europako doktoregoaren aipamena dute.**

**Estandarra:** doktorego-programak nazioartekotze-estrategia garbia dauka, ekintza espezifikoa egiten ditu eremu horretan, eta emaitza azpimarragarriak lortzen ditu.

#### BALIOESPEN DESKRIPTIBOA:

#### BALIOESPEN ERDIKUANTITATIBOA:

Lortu da

#### JARRAIBIDEA BETETZEN DELA BERMATZEN DUTEN EBIDENTZIAK ETA ADIERAZLEAK

Honako hauek hartuko dira kontuan doktorego-programaren nazioartekotze-estrategian:

- Nazioarteko irakasleak, egoitza atzerrian duen erakunde bati atxikita dauden edo egon diren irakasleak
- Nazioarteko ikasleak
- Nazioarteko baterako tutoretzak
- Nazioarteko hitzarmenak

- Nazioarteko lankidetzan egindako artikulua
- Ikerketa-egonaldiak

### 3. DIMENTSIOA: EMAITZAK

#### 9. IRIZPIDEA. TRANSFERENTZIAREN AIPAMENA

**Aukerakoa.** Doktorego-programak transferentziaren aipamena lortu ahal izango du, betiere honako betekizun hau betetzen bada: **sei urteetan defendatutako tesietako 6k “industria-doktoregoaren” aipamena dute edo, hala badagokio, enpresen eta/edo beste erakunde batzuen laguntza duten tesiak dira.**

**Estandarra:** doktorego-programak “industria-doktoregoaren” aipamenarekin defendatutako tesiak edo, hala badagokio, enpresen eta/edo beste erakunde batzuen laguntza duten tesiak egiteko estrategia garbia dauka, ekintzak egiten ditu eremu horretan, eta emaitza azpimarragarriak lortzen ditu.

#### BALIOESPEN DESKRIPTIBOA:

#### BALIOESPEN ERDIKUANTITATIBOA:

Lortu da

#### JARRAIBIDEA BETETZEN DELA BERMATZEN DUTEN EBIDENTZIAK ETA ADIERAZLEAK

Honako hauek hartuko dira kontuan doktorego-programaren estrategian:

- Enprekin eta beste erakunde batzuekin egindako hitzarmenak
- Industria-doktoregoaren aipamena duten tesien kopurua
- Enprekin eta/edo beste erakunde batzuekin lankidetzan egindako artikuluen kopurua
- Ustiatzen ari diren patenteak edo erregistroak
- Entitateek egindako finantzaketa
- Oinarri teknologikoko enpresen sorkuntza (spin-off eta start-up izenekoak eta abar).

### 3. DIMENTSIOA: EMAITZAK

#### 10. IRIZPIDEA. ENPLEGAGARRITASUNAREN AIPAMENA

**Aukerakoa.** Unibertsitateak jarraibide hau ebaluatu ahal izango du, betiere honako betekizun hau betetzen badu: % 90etik gorako enplegu-tasa dauka eta doktorego-programako egresatuen % 50ek doktoregoaren mailari, jakintzari eta kompetentziei argi eta garbi lotuta egiten dute beren lanbide-jarduera, edota azken 6 urteetan doktoregoa lortu duten eta arrakastatsutzat hartzeko moduko lan-egoeran dauden pertsonen gutxienez 10 kasu ditu dokumentatuta.

**Estandarra:** doktorego-programak tituluko egresatuak laneratzeko estrategia garbia dauka, ekintzak egiten ditu eremu horretan, eta emaitza azpimarragarriak lortzen ditu.

#### BALIOESPEN DESKRIPTIBOA:

#### BALIOESPEN ERDIKUANTITATIBOA:

Lortu da

#### JARRAIBIDEA BETETZEN DELA BERMATZEN DUTEN EBIDENTZIAK ETA ADIERAZLEAK

Honako hauek hartuko dira kontuan:

- Enplegu-tasa
- Enplegu bideratuaren tasa
- Arrakasta-kasuak
- Lanpostuaren kategoria islatzen duten ebidentziak